

Liburutegirako arduraduna kontratatuko dute Anoetan

Eskaerak aurkezteko azken eguna abuztuaren 14a izango da

Anoetako Udalak liburutegiko arduradun lanpostua eskaintzen du aldi baterako, eta lan poltsa osatzeko deialdia egin du. Eskaerak aurkezteko azken eguna abuztuaren 14a izango da.

Hautaketa prozesuan onartua izan eta parte hartzeko zenbait baldintzak bete beharko dira. Lan kontratu bat izenpetzeko legeak eskatutako baldintzak bete beharko dira; gutxienez 16 urte beteta eduki beharko dira; goi mailako batxilergo titulua, bigarren mailako lanbide heziketa titulua edo indarrean dagoen legediak parekotzat hartzen duen beste edozein titulu eduki; edo titulua lortzeko eskubideak ordainduta izatea. Bestalde, Absysnet programa erabiltzen jakin beharko da. Zentzu honetan, hautagaiek programa hori erabili dutela egiaztatzen duen agiririk badute aurkeztu beharko dute.

Hizkuntzari dagokionez, 3. hizkuntza eskakizuna egiten da: EGA, Hizkuntza Eskolako 5. maila, irakaskuntzako 2. hizkuntza-eskakizuna edo apirilaren 15eko 86/1997 dekretuaren arabera baliokidea den beste edozein aurkeztu beharko da. Azkenik, beharrezkoa izango da diziiplina espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea.

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaerak Anoetako udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira bulego ordutegian. Eskaera orriarekin batera hautagaiek hurrengo dokumentuak aurkeztu beharko dituzte: nortasun agir i ofizialaren fotokopia, titulazioaren fotokopia, Absysnet programari buruzko egiaztagiria, hizkuntza eskakizunaren fotokopia, eta merituen egiaztagiria.

Hautaketa lehiaketa bidez egingo da, merituen balorazioa oinarrian edukiko duena. Zentzu honetan, abuztuaren azken astean onartu eta baztertutakoen zerrenda eta epaimahaiaren osaketa Anoetako Udaleko iragarki taulan argitaratuko dira. Lehiaketaren emaitzak, aldiz, irailaren 8an. Gainerako hautagaiak puntuazioaren arabera sailkatuko dira eta lan poltsa bat osatuko dute. Aukeratutako hautagaia irailaren 15ean hasiko da lanean. >m.s.s.